

Ikasle etorkinentzako
hezkuntza-arretarako programa,
eskola-eredu inklusibo
eta kulturartekoaren barruan

2012 - 2015



**Ikasle
etorkinentzako
hezkuntza-
arretarako plana,
eskola-eredu
inklusibo eta
kulturartekoaren
barruan.**

2012-2015

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki
daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2012ko iraila

Ale-kopurua:
600 ale



Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 010010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.

L.G.:
VI 662 - 2012

Aurkibidea

1 Sarrera	6
2 Hezkuntza-egoeraren analisia	8
2.1. Biztanleria atzerritarra euskal hezkuntza sisteman	8
2.1.1. <i>Ikasle etorkinak Euskal Autonomia Erkidegoan</i>	9
2.1.2. <i>Egoera- eta kontzentrazio- aniztasuna</i>	11
2.1.3. <i>Ikasle etorkinen emaitzak kanpo-ebaluazioten</i>	13
2.2. Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako planaren aurrekariak	17
2.3. Gure errealitatearen alde sendoak eta erronkak	18
3 Helburu orokor eta espezifikoak	20
4 Ekintza estrategikoak	22
5 Jarraipena eta ebaluazioa	27
KRONOGRAMA	29

1. Sarrera

“Hay que empezar con los niños y las niñas. Que aprendan a convivir con quienes tienen hablas, pieles, dioses, costumbres distintas, y que, conviviendo, vayan desprendiéndose, como de un residuo inútil, en sus propias culturas, de todo aquello que dificulta o impide la coexistencia con los otros, es la más segura manera de conseguir que más tarde, cuando sean ya hombres y mujeres, puedan vivir en paz en esa diversidad étnica y lingüística, que, nos guste o no, será el rasgo primordial del mundo cuyos umbrales ya pisamos”.

(Mario Vargas Llosa, 2010)

Gure errealitatean beti izan dira kulturen arteko aldeak, baina egoera hori zabaldu egin da azkenaldian eskoletara iristen diren ikasle immigranteekin.

Biztanleria-ikerketak batzuek atzerritarren kopuruari erreparatu eta arriskuak azpimarratzen dituzte gehien bat; baina aldi berean, migrazio-jario horien arrazoiei buruzko gogoetak barne hartzen dituzten ikuspegiak hedatzen ari dira, etorkinen bizi-baldintzak aztertzen dira, ematen zaien harrera nolakoa den begiratzen da, zer zailtasun dituzten eta zer abantailekin topo egiten duten ikertzen da eta, azkenik, ezartzen zaizkien egokitzapen-eskakizunez jabetzen dira.

Apurka-apurka gainditu egin behar dira “haien” (immigranteak) eta “gure” arteko ezberdintasunak azpimarratzen dituzten ikuspegiak, baita horiek islatzen dituzten hezkuntza-filosofiak ere, hots, integrazioa norabide bakarreko bidetzat (haiek guganantz) hartzen dutenak.

Ikuspegi hori gainditzeko Hezkuntza Sailak abian du *“Aniztasunaren arretarako plan estrategikoa, eskola eredu inklusibo baten barruan”* izenekoak. Alderdi hauek azpimarratzen dira:.

- Hezkuntza inklusiboak esan nahi du ikasleek kulturaren, curriculumetan eta eskola-komunitateetan duten parte-hartzea handitzeko, eta bazterketa urritzeko prozesuak egon behar dutela.
- Hain zuzen ere, ikasle mota jakin batek horietan esku hartu eta parte hartzeko oztopoak gainditzeko kezka lagun dezake, bereziki, eskola batek bere ikasleen aniztasunari arreta emateko orduan dituen mugak azaleratzen.
- Aniztasuna ez da konpondu beharreko arazo bat, guztion ikaskuntzan laguntzeko aberastasun bat baizik.
- Inklusioa eskolen eta hori osatzen duten komunitateen arteko harremanak sendotzeari dagokio.

Kulturarteko hezkuntza kultura-aniztasuna errespetatu eta balioestean oinarritzen da eta, horren ondorioz, bi helburuko planteamendu orokor hau dakar:

- Egungo trukeak indartzea, kulturen arteko elkarriketaren bidez kultura guztiak aberastu daitezzen. Kulturarteko hezkuntza ez da bukatzen besteen kultura zabaldu eta horrekiko begirunea erakustearekin; aitzitik, kultura ezberdina duen pertsona hori aitortu eta harrera eman behar zaio. Lehen gauza, eta funtsezkoa, **BESTE**A da, ez bere kultura.
- Aukera-berdintasuna sustatzea, eta kultura-talde guztiei (gehiengo zein gutxiengo direnei) ematea kompetenteak izateko eta gizarte konplexu eta askotarikoan txertatzeko behar dituzten baliabideak.

Kulturarteko ekintza integratu batek ez dio soilik hezkuntzari eragin behar, baita politikari, ekonomiari eta kulturari ere; gainera, ekintza horrek aldaketak eragin behar ditu gizarte hartzailean. Hala, bada, oso garrantzitsutzat jotzen da erakundeen arteko lankidetzak.

2. Hezkuntza egoeraren analisia

2.1. Biztanleria atzerritarra euskal hezkuntza sisteman

Inmigratio Institutuak emandako datuen arabera eta Estatistikaren Institutu Nazionalaren behin-behineko datuetatik abiatuz, 2011n erroladatutako 144.551 pertsona zeuden EAEn, biztanleria osoaren % 6,6 dena. 1998. urteari begira, biztanleria atzerritarra zortzi eta erdi aldiz baino gehiago hazi da eta, horiengatik izan ez balitz, EAeko biztanleak jaitsiko ziren, % 2,1ekoa izan baita aldi horretan biztanleria autoktonoaren hazkundera.

Bilakaera lurralde historikoetan eta EAEn. 2000tik 2011ra

Total	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Araba	3.818	5.462	8.031	10.445	12.058	15.141	16.857	19.392	22.840	26.021	28.210	28.641
Gipuzkoa	7.903	8.856	11.716	14.878	18.232	21.536	25.290	29.040	35.935	40.859	42.449	43.948
Bizkaia	9.419	13.120	18.661	23.908	28.876	36.217	43.395	50.092	58.562	65.859	68.710	71.962
EAE	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	117.337	132.865	139.369	144.551

Bilakaera orokorra EAEn

Biztanleria atzerritarren ehunekoa, guztizkoarekiko (2000tik 2011ra)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Total	2098596	2101478	2108281	2112204	2115279	2124846	2133684	2141860	2157112	2172175	2178339	2183615
Extranj	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	117.337	132.865	139.369	144.551
% extranj	1,0	1,3	1,8	2,3	2,8	3,4	4,0	4,6	5,4	6,1	6,4	6,6

Iturria: Immigratioari buruzko II. Euskal Plana.


Behatokiak berak azaltzen duenez, azken urtean immigranteen kolektiboaren ezarpen-maila altuagoa izan da: *"migratio-prozesuaren hasieran prozesua banakakoagoa zen; gerora, familiek bat egin dute berriro, bikotea eta seme-alabak iritsi baitira"*. Horrek azaltzen du biztanleria immigrantearen hazkunde azkarra euskal hezkuntza-sisteman, aurrerago ikusiko dugun moduan, 2000. eta 2011. urteen artean hamar aldiz hazi baita.

Estatu mailako testuingurua kontuan hartuta, EAeko atzerritarren ehunekoa beste autonomia erkidego batzuetan gertatzen dena edo estatuaren batezbestekoa baino askoz txikiagoa da. Hala ere, eta azken urteetan biztanleria atzerritarren hazkundera buruz eman diren datuak kontuan hartuta, lehen aldiz estatu mailan, baita zenbait autonomia erkidegotan ere, atzerritarren kopurua jaitsi dela ikusten da. Hots, antza denez, saturazio bat gertatu da orain arte atzerritar gehien izan duten autonomia erkidegotan eta, aitzitik, orain arte horrenbeste izan ez duten

horietan oraindik gehiago sartzan direla ikusi da. Testuinguru honetan hau azpimarratu behar da: EAE da azken urte honetan biztanleria atzerritarra termino erlatiboetan gehien hazi den bigarren autonomia erkidegoa. Extremadura bakarrik dago gorago eta hazkundera handiagoa izan da Gipuzkoa eta Bizkaian, Araban baino.

2.1.1. Ikasle etorkinak EAEn.

Immigrazioaren fenomenoak gainerako autonomia-erkidegoetan baino geroago iritsi da EAEn. 1999-2000 ikasturtean 2.107 ikasle izatetik, 23.765 ikaslerara iritsi da 2010-2011 ikasturtean. Hazkunde horren ondorioz, hamar aldiz handitu da euskal ikastetxeetako ikasle etorkinen kopurua, bilakaera ia guztiz egonkorrean. 2002-2003 ikasturtetik aurrera urtero ia 3.000 ikasle atzerritar gehitu zaizkio sistemari 2007-2008 ikasturtera arte; hortik aurrera eta 2010-2011 ikasturtera arte, hazkunde hori zertxobait moteldu da, beheko grafikoan ikus daitekeen bezala..




Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Ikasle horien banaketa aztertzeke orduan faktore oso garrantzitsu bat hartu behar da aintzat: ikasle atzerritarrek ez daude modu orekatuan eskolaraturik, ez lurralde historikoari, ez, hezkuntza-aroiari, ez sareei ez eta hizkuntza-ereduei dagokienez ere; izan ere, sare bakoitzaren barruan ikasleak modu batera eskolaratzen dituzte.

Immigrazio Behatokiaren arabera, ikasle etorkin guztietatik % 40,9 Hegoamerikatik datoz eta % 29 Afrikatik. Zentzu horretan, biztanle afrikarrek pisu handiagoa duten euskal hezkuntza-sisteman, eroldan dutena baino. Kontrako joera jatorri europarreko biztanleen artean gertatzen da eta hegoamerikarrek, aldez, nolabaiteko oreka erakusten dute.

Beheragoko grafikoan dago irudikatuta EAEko ikasle atzerritarren banaketa, 2010-2011 ikasturtean, lurraldeen eta sareen arabera.



Iturria: Immigrazio Behatokia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu moldaturik.

Ikus daitekeen gisara, bi joera hautematen dira: Bizkaian eta Gipuzkoan aurki daitekeena, batetik, eta Arabakoa, bestetik; azken horretan ikasle guztien %12 da atzerritarra; Gipuzkoan %6,6 eta Bizkaian, berriz, %8. EAEko batez bestekoa %8,1 da. Gipuzkoan izan ezik, beste bi lurralde historikoetan %10etik gorakoa da (Arabak %16,6ra iristen da) ikastetxe publikoetan eskolaratutako ikasle atzerritarren ehunekoa. Ikastetxe pribatuetan, aldiz, %4 eta %5 artean dago.

Arabak, eskola pribatuak garrantzi nabarmenagoa du immigranteen taldean beste bi lurraldeetan baino. Zehazki, ikasle horien %82,2 ikastetxe publikoetara joaten da. Araban; Gipuzkoan, berriz, %73,2 eta Bizkaian %72,6. Nolanahi ere, ikasle atzerritarren %70 baino gehiagok jotzen du sare publikora lurralde guztietan.

Hezkuntza sistemaren etapan arteko banaketari dagokionez, 2010-2011 ikasturtean immigrante-kopuru gehiena LHn zeuden (8.000 ikasletik gora zeuden), DBHn ia 6.000 eta haur hezkuntzan, berriz, 4.000tik gora. Hala eta guztiz ere, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko aroetan dago ikasle atzerritarren gehiengoa: HLPPetan guztizkoaren %33,4 dira eta HHEn %24; DBHn %8 dira, LHn %7,1 eta Haur Hezkuntzan, azkenik, %4,8.

2.1.2. Egoera- eta kontzentrazio- analisia

Lurralde historikoen arteko ezberdintasunekin batera, sare publikoan zein pribatuan ikastetxe batik bestera dauden aldeak ere nabarmendu behar dira. Aurrerago ikusi den bezala, ikasle atzerritarren ehunekoa handiagoa da sare publikoan itunpekoetan baino; hala ere, alde handiak daude, ehunekoei dagokienez, ikastetxe publikoen artean edota itunpekoen artean. Hizkuntza-eredua da barne-ezberdintasun horien gakoetako bat.

Azken ebaluazio diagnostikoaren arabera, LHko 522 ikastetxeetatik, 160tan ez dago ikasle atzerritarrik; beste hainbeste gertatzen da Bigarren Hezkuntzako 333 ikastetxeetatik 82tan. Hizkuntza-eredua eta hezkuntza sarea gurutzatzean (estratua), 2010eko diagnosi-ebaluazioko datuetan oinarrituta, beti ere, horietan den oreka urritasuna agertzen da:


LHko 4. maila. Biztanleria immigrante eta autoktonoa estratuka (%).				
	Biztanleria autoktonoa		Biztanleria immigrantea	
	KOP	%	KOP	%
A publikoa	356	62,2	216	37,8
B publikoa	1163	82,0	255	18
D publikoa	7164	94,2	438	5,8
A itunpekoa	945	93,7	64	6,3
B itunpekoa	4170	95	220	5
D itunpekoa	3926	97,1	119	2,9
Guztira	17.724	93,1%	1.312	6,9%

DBHko 2. maila. Biztanleria immigrante eta autoktonoa estratuka (%).				
	Biztanleria autoktonoa		Biztanleria immigrantea	
	KOP	%	KOP	%
A publikoa	538	53,6	466	46,4
B publikoa	916	86,7	140	13,3
D publikoa	6.064	96,7	209	3,3
A itunpekoa	1.602	84,3	298	15,7
B itunpekoa	3.937	94,8	217	5,2
D itunpekoa	3.548	97,6	86	2,4
Guztira	16.605	92,1	1.416	7,9

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio diagnostikoa 2011

LHn zein DBHn, “A publikoa” geruzan dago eskolatutako immigranteen ehunekorik handiena. Gainerako estratuetan alde handiak daude aroen artean; zenbaitetan hiru aldiz handiagoa da ehunekoa aro batetik bestera (“A itunpekoa” geruzan). D ereduan dago ehunekorik baxuena, eskola publiko zein itunpekoetan, baina LHn “D publikoa” geruzako ikasle immigranteen ehunekoa “D itunpekoa” geruzakoaren bikoitza da (%5,8 eta %2,9, hurrenez hurren). Datu hori garrantzitsua da “D publikoa” estratuak sare publiko osoaren %80 hartzen duela aintzat hartuz gero.

Titulartasun pribatuko ikastetxeen sarearen barruan, ia gehienak itunpekoak dira, baina ezberdintasun nabarmena dago gehiengo osatzen duen Kristau Eskola taldean; izan ere, EAEko batez bestekora hurbiltzen diren ehunekoak ditu (%7,6), baina sare publikoko datuetatik eta gainerako patronatu edo sektoreko taldekoetatik aldeniak.



Azkenik, oso kontuan hartu behar da ikastetxe batzuetan, Lehen zein Bigarren Hezkuntzan, ikasle immigranteen kontzentrazio altua dagoela. Horrela, 2010eko diagnosi-ebaluazioak emandako datuen arabera, LHko 25 zentrotan eskolatuta daude immigrante guztien %25, eta 85 zentrotan biltzen da aro horretan eskolatuta dagoen biztanleria immigrante guztiaren %55. Oso antzeko fenomeno gertatzen da DBHko zentroetan ere.


Gainera, LHko 12 ikastetxetan eta DBHko 8tan immigranteak dira ikasleen %50 eta %70 artean; eta badira %70etik gorako kontzentrazioa duten ikastetxeak ere.

2.1.3. Ikasle immigranteen emaitzak kanpo-ebaluazioetan


Ikasle etorkinen emaitzak aldagai gisa aintzat hartu ohi izan dira orain arte egindako sistemaren ebaluazioetan, bai euskal hezkuntza-sistemako barne-ebaluazioetan (2009, 2010 eta 2011ko diagnosi-ebaluazioak), bai estatuko (diagnosi-ebaluazio orokorrak) zein nazioarteko (PISA eta TIMSS, besteak beste) ebaluazio konparatiboetan ere.

Horietan guztietan, ikasle immigranteen emaitzak autoktonoen emaitzen azpitik egon dira beti nabarmenki, eta inolaz ere ez dute lortzen, ez LHn ezta DBHn ere, ebaluatu diren gaitasunetan beste ikasleen mailara iristea. 2011ko diagnosi-ebaluazioan, LHko 4. mailan eskolatutako ikasle immigranteek 30 puntu inguruko aldea dute *euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean* eta *matematikarako gaitasunean*, eta 17 puntu ingurukoa *gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean*. Ingelesez komunikatzeko hizkuntz gaitasunaren kasuan, aldea 26 puntutara igotzen zen.

Antzeko zerbait gertatzen zen 2. DBHn, baina emaitzak muturrekoagoak dira *euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean* (51 puntuko aldea) edo *matematikarako gaitasunean* (42 puntuko aldea).



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio diagnostikoa 2011.




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio diagnostikoa 2011


Ikasle etorkinen emaitzei buruzko datu hauetatik, ikasle autoktonoekin edo EAEko batezbestekoarekin konparazioan, ez dugu ikasle etorkin guztiek oinarrizko gaitasunetan oso emaitza txarrak ateratzen dituztela dioen ondorio okerra atera behar, ezta "emaitza kaskarretako ikasleak" estigma faltsua sortu ere. Ikasle etorkinen artean autoktonoen artean bezain handia da emaitzen aniztasuna eta, beraz, oso egoera desberdinak gertatzen dira, ikasle mota horien eskola-arrakastari edo porrotari begira. Ebaluazio guztietan ikusten dugunez, ikasle etorkinen zati batek emaitza bikainekin garatzen ditu bere gaitasunak gizarte-, ekonomia- eta familia-indizearen edozein mailatan, baita indize horren behe mailetan eta, curriculumari begira, haien abiapuntua ikasle autoktonoena baino eskasagoa den eta eskola-esfortzu handiagoa egin behar duten kasuetan ere.

Diagnostiko-ebaluazioaren hiru edizioetan neurtu diren oinarrizko gaitasunetan ikasle etorkinen emaitzek bi ondorio esanguratsu erakusten dizkigute:

- a) Ikasle etorkinek emaitzak hobetu dituzte hiru edizioetan. Adibidez, 2009an euskarako hizkuntza gaitasunean lortutako 205 puntuetatik azken edizioan lortutako 223tara pasa da, edo 227tik 204ra gaztelaniaren kasuan. Antzeko zerbait gertatzen da DBHko 2.eko ikasleekin.



b) Diagnostiko-ebaluazioaren hurrenez hurreneko edizioetan gutxituz joan da ikasle autoktonoek eta etorkinek lortutako puntuazioen arteko aldea, grafiko honetan ikus daitekeenez:



Ikusitako datuak eta emaitza horiek guztiz ulertzeko, eragin handia duten bi aldagai hartu behar dira kontuan: alde batetik, ikasle immigranteen %30 ez dago dagokion ikasturtean, eta ehuneko hori %56ra iristen da 2. DBHn; bestetik, familiaren gizarte-, ekonomia- eta kultura-maila (GEKM) ikasle autoktonoena baino nabarmen baxuagoa da.

Nazioarteko ebaluazioen datuek, PISA txostenarenak, esaterako, alde horiek baieztatu ez ezik, beste datu argigarri bat ematen dute: Euskadin daude ikasle immigrante eta autoktonoen arteko alde handienak, Katalunia, Errioxa eta Gaztela eta Leon autonomia-erkidegoekin batera.

PISA 2009. Ikasleen ehunekoa beren jatorriaren eta errendimenduaren arabera, autonomia-erkidegoka

Elkarte autonomoa	Autoktonoak	Immigranteak	Aldea
	Puntuak	Puntuak	
Kanariar uharteak	451	437	14
Balearr uharteak	466	430	36
ELGA	500	456	44
Zeuta eta Melilla	420	374	46
Galizia	489	442	47
Kantabria	492	444	48
Andaluzia	465	412	53
Nafarroa	505	451	54
Spainia	488	432	56
Madril	514	456	58
Asturias	495	433	62
Murtzia	489	426	63
Aragoi	504	439	65
EAE	499	428	71
Gaztela eta Leon	508	427	81
Katalunia	508	425	83
Errioxa	511	427	84

Laburbilduz:

- Immigranteen biztanleria asko hazi da joan den hamarkadaren hasieratik; egun, ikasle guztien %8,1 etorkinak dira.
- Desoreka dago ikasle horien eskolaratzean, bai lurraldeei dagokienez, eta bai hizkuntza-ereduei zein hezkuntza-aroari dagokienez ere.
- Ikasle etorkinen emaitzak egindako ebaluazio guztietan baxuagoak dira eta ez dira inoiz batezbestekora iristen, emaitzen aniztasuna ikasle etorkinen artean autoktonoen artean bezain handia den arren.
- Nolabaiteko hobekuntza gertatu da diagnostiko-ebaluazioaren hurrenez hurreneko edizioetan ikasle etorkinen emaitzetan eta ikasle autoktonoen eta etorkinen emaitzen arteko aldea gutxitu da.

2.2. Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako planaren aurrekariak

Gure autonomia-erkidegoan, hainbat modutara aurre egin zaio hizpide dugun erronka bikoitzari: bat, hezkuntza kultura anitzeko egoera batera moldatzea eta bi, ikasle immigranteen hezkuntza-beharrizan bereziak aintzat hartzea. Ikasle immigranteen kopurua txikia zenean, hezkuntza-sistemak zenbait neurri hartu zituen. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxetan harrera-ikasgelak jarri ziren, hain zuzen ere. Horrela, ikastetxeko hizkuntza ezagutzen ez zuten ikasleak zegokien eskolan matrikulatu ondoren, ikasgela horietara bidaltzen zituzten hiru hilabetez, gutxienez, eta ikasturte batez, gehienez, hizkuntza-maila onargarri bat lortu eta, hori esker, zegokien eskolan hezkuntza-prozesuarekin jarrai zezaten. Aldi berean, EAEko ikastetxe batzuetan hizkuntza indartzeko ikasleen figura abiarazi zen, esperimentu gisara.

Ikasle immigranteen kopuruak gora egiten zuen heinean, ordea, programen bidez lan egiten hasi ziren. 2003-2004 ikasturtetik azken ikasturtera arte (2010-2011) bi programa espezifiko garatu dira:

- *Ikasle Etorkinak Artatzeko Programa (2003-2007)*. Programaren helburu nagusia ikasle immigrante guztiak eskolan integratzea zen, beren gizarteratzea eta kultura-integrazioa bultzatuz, ikasle horien hizkuntza, kultura, gizarte-egoera eta jatorria gorabehera. Helburu orokor hori hiru helburu zehatzagoetan banatzen zen: EAEko hizkuntza ofizialak menderatzea, ahoz zein idatziz; gainerako ikasleen curriculum bera lantzea; eta ikasleek eskolan zein gizartean mailaz maila burujabetasuna lortzea.
- *Kulturartekotasunerako eta Ikasle Berrien Inklusiorako Programa 2007-2010*. Plan hau aurreko ebaluazioaren ondoren sortu zen, Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren barruan. Programa hori hiru helburutan egituratzen zen, bakoitza jarduera jakin batzuei lotuta:
 1. Kulturarteko hezkuntza bultzatzea, berdintasunean, elkartasunean eta kultura aniztasunarekiko begirunean oinarrituta.
 2. Eskolan eta gizartean ikasle iritsi berrien inklusioa bultzatzea, harrera zein integrazio egokiak bermatuz eta edozein motatako bazterketak saihestuz.
 3. Ikasle iritsi berriei eskola-arrakasta lortzen laguntzea, gure autonomia-erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ikasi, batez ere euskarazko ikaskuntza sendotu, eta familiek euskararekiko jarrera positiboak izan ditzaten saiatur.

2.3. Gure errealitatearen alde sendoak, ahuleziak eta erronkak

Egungo egoera aztertuz gero, zenbait neurri egonkortu direla baieztatu daiteke eta, horiei esker, hezkuntza-erantzun eraginkor bat sendotzen ari dela. Eskola inklusibo bat lortzeko bidean erakundeek egindako apustuak araudi berria ekarri du eta, horri esker, ezarritako hezkuntza-politiketan ikasle etorkinekin egin beharreko lanaren funtsezko ezaugarriak zehaztu dira.

Hezkuntza-politikak joera berri horretan sartzeko esparrua aipatutako *Aniztasunaren arretarako plan estrategikoa 2011-2015, eskola eredu inklusibo baten barruan* izenekoa da.

Plan horren harira, ondo bultzatuz gero aurrerapen garrantzitsuak ekarriko dituzten egoerak sortzen ari dira, hala nola, diagnostiko-ebaluazioen emaitzen ondorioz ikastetxeetan ezarritako hobekuntza-planak, gaitasunen araberrako curriculumak, 2.0 metodologiak bultzatzea, proiektu hirueledunak, eta hezkuntza-sareetan lehentasunak ezartzea (Amara Berri, Ikas-Komunitateak, Kalitatea Hezkuntzan)

Gorago aipatutako programak abiaraztearen ondorioz, antolaketa-eta giza baliabide jakin batzuk aktibatzen dira. Lehenik, hizkuntza indartzeko ikasleak: 2004-2005 ikasturtean 117 zeuden sare publikoan eta egun, berriz, 242 inguru. Bigarrenik, ikasle etorkin eta atzerritarren ehuneko handia duten 80 ikastetxetan Kulturarteko Proiektuak dinamizatzen dituzten ikasleak jarri dira.

Prestakuntzan eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zerbitzuek (Berritzeguneak) prestakuntza-eskaintza zabal bat diseinatu eta garatu dute, hala nola, hizkuntza indartzeko eta kulturarteko proiektuak dinamizatzen dituzten irakasleentzako mintegi egonkorak, edota kulturarteko ikuspegiari buruzko jardunaldi eta ikastaroak.

Gainera, material espezifikoa egin eta zabaldu dira irakasleentzat. *Zubirik Zubi* bildumak hainbat ekintza proposatzen ditu ikasleentzat eta horien senideen harrera-prozesuarekin, eskolako hizkuntzak ikastearekin eta curriculum-eremuekin lotuta. Por otro lado, en unos 80 centros con un porcentaje alto de alumnado inmigrante/extranjero se ha incorporado el profesorado dinamizador de los Proyectos Interculturales. Bestalde, eskolatzea ahalik eta baldintza onenetan gertatzea da lurralde mailako eskolatzeko-batzordeen lanaren ardatza, matrikulatzeko ohiko epeetatik at hasten diren ikasleentzat ezaugarriak kontuan hartuta.

Aldi berean, ordea, badaude unera honetara arte gauzatutako ekintzak azkarrago aurrera egitea zailtzen duten zenbait oztopo. Oztopo hauek ondorengo puntuak hobetzeko premiarekin dute zerikusia:

- *Instituzioen arteko politikak.*
- *Ikasle horiek eskolatzeko prozesuak eta sisteman zehar dituzten trantsizioak.*
- *Ikastetxeetan aurrera eramaten diren proiektuen izaera globala,*

atzerriko ikasle asko dituzten haietan batez ere.

- *Kultur eta hizkuntza aniztasunaren testuinguruetan lan egiteko irakasleen trebakuntza.*
- *Prestakuntzari buruzko planteamenduak, praktikoagoa izan dadin.*
- *Materialen diseinua eta haien areagotzea, euskaraz aurkezten direnak batez ere.*
- *Hezkuntza-erkidego osoaren inplikazioa.*

Egindako ebaluazioetan ikasle etorkinen emaitzak gainerako ikasleenen azpitik daudela ikusteak argi uzten du ikertzen eta hezkuntza-jarduera eraginkorrakoak ikertu eta eraikitzen jarraitu behar dela.

Gizartean oso sustraituta dago eskola batean etorkin gehiegi egoteak gainerako ikasleenen errendimendua kaltetzen duelako ustea; uste hori zalantzan jartzen ari dira, ordea, eskola-errendimendua hobetzen laguntzen duten eta, gainera, gizarte-kohesioa hobetzen laguntzen duten praktikak proposatzen dituzten ikerketen kariatara.

Irakaskuntzak aniztasun handiko egoeretan lan egiteko duen erronkak, kulturari eta hizkuntzari dagokionez, antolamenduan, metodologian eta curriculumean aldaketak egitea eskatzen du; aldaketa horiek gehiago edo gutxiago sustraitutako jarduerekin talka egin dezakete, ordea, azken horiek homogeneizaziorako eta ikasleenen errendimenduari buruzko itxaropenak urritzeko joera duten heinean.

Analisi honetan ezin dira alde batera utzi ikasle immigranteen zati batek dituen hezkuntza-beharrizanak. Batetik, eskola berri eta ezberdin batean integratzeko prozesuarekin lotutako beharrizanak daude, non harrera onak garrantzia berezia hartzen duen. Bestetik, eskolako hizkuntza ikastearekin lotutakoak daude, ez bakarrik harremanak izateko, baita ikasteko eta gaitasunetan aurrera egiteko ere. Azkenik, aurretiazko eskolatze-historiarekin lotutako beharrizanak daude, batzuek besteekin zer ikusirik izan ohi ez dutenak eta, sarri askotan, defizitarioak direnak. Beharrizan horiek guztiak are gehiago larritu daitezke ikasleenen familiak gizarte- eta ekonomia-egoera zailetan badaude.

Hori dela eta, esku-hartzerako proposamenekin batera baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko lirateke, goiko jardueren horiek guztiak ikastetxeetako esku-hartzerako plan orokorretan txertatu ahal izateko. Garrantzitsutzat jotzen da, orobat, dauden baliabideak optimizatu eta ahal bezain errentagarri egitea, esate baterako, ikuspegi inklusibo batetik heziketa-laguntzaren kontzeptua birpentsatuz.

Azkenik, irakasleenen etengabeko prestakuntzak ere bilatu behar ditu proposatutako ekintzen eraginkortasuna areagotzera bideratutako formatu berriak. Irakasleenen prestakuntzarako eta berrikuntzarako laguntza-zerbitzuek (Berritzeguneak) zein unibertsitateek ikerketa-ildoak finkatu beharko lituzkete, hezkuntza-jarduera hobetzeko bidean eragiteko.

3. Helburu orokor eta espezifikoak

3.1. Helburu orokorra

Plan honen helburu orokorra da **hezkuntza-kultura, -politika eta -jardueretan kulturarteko ikuspegia txertatzea**. Horrek lagunduko du, beste ekintza batzuekin batera, berdintasunaren eta guztien eskola-arrakastaren alde apustu egingo duen hezkuntza-sistema bat sendotzen, arrazakeria- edota bazterkeria-adierazpen orori aurre egin diezaion.

Hala, bada, beharrezko jarraibide eta baliabideak ipini behar dira hezkuntza-jarduera eraginkorrak sustatzeko, horiek errendimendua eta gizarte-kohesioa hobetzeko lanean eragin zuzena izan dezaten.

3.2. Helburu espezifikoak eta xedeak

1. helburua. Kulturarteko ikuspegia sendotzea ikastetxeetan, ikuspegi horrekin bat datozen antolamendu-ekimen berritzaileen bidez, eta irakasleak prestatu eta aholkatzeko prozesuen bidez.

Xedeak

- 1.1. Ikastetxeen barruan proiektu orokorrak bultzatzea, kulturarteko ikuspegia duen esku-hartzea eragiteko.
- 1.2. Kulturarteko ikuspegia txertatzea ikastetxeko erakunde-agirietan (ikastetxearen hezkuntza- eta curriculum-proiektuak, urteko plana, etab.
- 1.3. Zuzendaritza- eta irakasle-taldeak aholkatzea kulturarteko hezkuntzaren oinarriari eta horiek eskolako arlo ezberdinetan dituzten ondorioei buruz.
- 1.4. Irakasleei laguntzea ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratutako jarduera eraginkorrak garatzeko orduan.
- 1.5. Irakasle-taldeei laguntzea, familiekin duten esku-hartzean, informazio- eta aholkularitza-prozesuak hobetuz eta senideen prestakuntza eta parte-hartzea bultzatuz.

2. helburua. Araudia, programak eta ekintza-jarduerak eguneratu eta moldatzea, ikasle guztiak modu inklusiboan eskolatu ahal izateko irizpideei men eginez.

Xedeak

- 2.1. Euskal hezkuntza-sistemara ohiko matrikulazio-epeetatik kanpo iristen diren ikasleak eskolatzeko irizpideak berrikusi, bateratu eta argitzea.
- 2.2. Ebaluazio-prozesua berrikustea ikasle guztien hezkuntza-beharrizantetara doitzeko.
- 2.3. Ekimen bateratuetan parte hartzea Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza eta sail batzuekin, ikasle etorkinen inklusioa sustatzera bideratutako proiektuetan.
- 2.4. Erakunde eta elkarteekin koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea kulturarteko ikuspegia sustatzeko.

3. helburua. Baliabide berezien eraginkortasuna eta koordinazioa bultzatzea, aniztasun handiko egoeretan lan egiteko erronkaren aurrean ikastetxeen planteamenduak hobetzeko.

Xedeak

- 3.1. Hizkuntza indartzeko zein kulturarteko proiektuak dinamizatzeko irakasleek lana eraginkorra den aztertzea.
- 3.2. Esku-hartze orokorreko proiektuak abian hartzea halakoak behar dituzten eta bazterkeria-arriskuko inguruetan dauden eskoletan, hezkuntza-errendimendua zein bizikidetzak hobetze aldera.
- 3.3. Prestakuntza-eragile ezberdinek sarean lan egin dezaten bultzatzea.

4. Ekintza estrategikoak

1. helburua

Kulturarteko ikuspegia sendotzea ikastetxeetan, ikuspegi horrekin bat datozen antolamendu-ekimen berritzaileen bidez, eta irakasleak prestatu eta aholkatzeko prozesuen bidez.

1.1. xedea. Ikastetxeen barruan proiektu orokorrak bultzatzea, kulturarteko ikuspegia duen esku-hartzea eragiteko.

ekintzak:	adierazleak:
Ikastetxeko prestakuntza	Haien prestakuntza- eta berriztapen-proiektuetan kulturen arteko ikuspegia garatzen duten jarduerak aurkezten dituzten ikastetxeen ehunekoa.
Ikastetxea auzoan integratzera bideratutako ekintzak (ikastetxeko liburutegia irekitzea edota beste eragile batzuekin batera jarduerak antolatzea, hala nola, gazte	Lehentasunezko irizpideak deialdietan agertzea.
Hartu	Haien proiektuetan (urteko planak) auzoan integratzera zuzendutako jarduerak sartzen dituzten ikastetxeen ehunekoa.

1.2. xedea. Kulturarteko ikuspegia txertatzea ikastetxeko erakunde-agirietan (ikastetxearen hezkuntza- eta curriculum-proiektuak, urteko plana, etab.).

ekintzak:	adierazleak:
Ikastetxeko erakunde-agiriak berrikustea, kulturarteko ikuspegia aintzat hartuta.	Agiri instituzionaletan aldaketak, kulturen arteko ikuspegia kontuan hartuta, sartu dituzten ikastetxeen kopurua.
Ikasle etorkinen ezaugarri eta premiak kontuan hartuta egitea hobekuntza-planak.	Ikastetxearen emaitzak hobetzea ebaluazioetan.
Ikastetxeko Bizikidetzeta Plana sustatzea; plan horrek arreta berezia jarriko du arrazakeriaren aurkako hezkuntzan; gainera, eskolaren egitura zein antolamenduari, etikari eta balioei lotutako hainbat jarduera barne hartuko ditu.	Elkarbizitza-planetan ikuspegi hori kontuan hartzeko orientabideak egin eta hedatu dira.
Ikastetxeko harrera-planak orokortzea, horiek ikasturtearen hasierako jarraibideetan sartu eta agiri hori ikastetxeko urteko planean txertatuz.	Harrera-plan bat egin eta Urteko Planean sartu behar dela ikasturtearen hasierako argibideetan aipatzea. Harrera-plan bat egin duten ikastetxeen kopurua.
Jarduera-protokolo bat egitea, ikasle etorkinak etapa eta ikastetxe desberdinen artean errazago mugitzeko.	Protokoloa egin eta hedatu da.
Banakako esku-hartzerako planak eguneratzea, eskola inklusiboaren ikuspuntutik, ikasle etorkinekin lan egiteko orduan tresna erabilgarriak izan daitezten.	Banaka esku hartzeko planak gaurkotzeko orientabideak egin eta hedatu dira.

1.3 xedea.- Zuzendaritza- eta irakasle-taldeak aholkatzea kulturarteko hezkuntzaren oinarriari eta horiek eskolako arlo ezberdinetan dituzten ondorioei buruz.

ekintzak:	adierazleak:
Zuzendaritza-taldearen prestakuntzan sartzea kulturarteko hezkuntzaren hatsarreei eta horiek eskolako arlo ezberdinetan (antolamendua, curriculum, metodologia, etab.) dituzten ondorioei buruzko gogoeta.	Eduki hauek dituen modulu bat sartu da zuzendaritza-taldearen prestakuntzan.
Proposamen inklusibo eta kulturartekoaren hatsarreak sendotzea kulturarteko proiektuen irakasle dinamizatzaileei eta hizkuntza indartzeko irakasleei bideratutako tokian tokiko berritzeguneen prestakuntza-eskaintzan.	Kargu horientzako ikastaro eta mintegiak eskaintzen dira zonalde mailako berritzeguneetan eta eduki horiekin prestakuntza-modulu bat sartzen da.
Praktika inklusibo eta kulturen artekoen buruzko prestakuntza antolatzea ikasle etorkinen kopuru esanguratsua duten ikastetxeetan.	Prestakuntza egiten duten ikastetxeen eta saioen kopurua.
GARATU eskaintzan kulturarteko ikuspegia garatzea barne hartzen duten ikastaroak sendotzea.	Eskaintzen diren Garatu ikastaroak.

1.4. xedea. Irakasleei laguntzea ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratutako jardueraren eraginkorrak garatzeko orduan.

ekintzak:	adierazleak:
Haur-hezkuntzan ahozko zein idatzizko hizkuntza ikasteko materialak sor daitezela sustatzea, bai eta LH zein DBHko zikloetan eskolaratzen den ikasleentzat azkar idazten eta irakurtzen ikasteko materialak ere.	Materialak egiteko deialdietan agertzen dira ikaskuntza-eremu honi lehentasuna ematen dioten selekzionatzeko irizpideak. Egindako materialak.
Ikasmaterial eleaniztunak sor daitezela sustatzea, baliabide digitalak eta software tresnak barne (hiztegiak, itzultzaile automatikoak eta entziklopedia eleaniztunak, besteak beste).	Testuinguru eleaniztunak hizkuntzak ikasteari eta curriculumaren kulturen arteko dimentsioari buruzko curriculum-materialak egiteko ikasketa-lizentziaren bat sartu da. Egindako materialak.
Ikastetxerako eta ikasgelarako metodologia-estrategiei buruzko jarraibideak sortzea irakasleentzat, proposamen inklusibo eta kulturartekoarekin bat datozenak.	Orientabideak egin eta hedatzea. Emandako agiriei buruzko irakasleen balorazioa.
Jardunaldiak edota topaketak antolatzea esperientzia berritzaile eta arrakastatsuak ezagutzera emateko. Horietan, besteak beste, honako gaiak jorratuko dira: ikasgelako ohiko egoeretan ikasleen parte-hartzea bultzatzea eta ikasteko hizkuntza apurka-apurka barneratzeko moduak.	Gai hauekin jardunaldiak eta topaketak egitea.

1.5. xedea. Irakasle-taldeein laguntzea familiekin duten esku-hartzean, informazio- eta aholkularitza-prozesuak hobetuz, eta senideen prestakuntza eta parte-hartzea bultzatuz .

ekintzak:	adierazleak:
Familia etorkinekiko komunikazioa, haien harrera eta parte hartzeko eta prestakuntza emateko prozesuak hobetzeko estrategiei buruzko orientabideak eman ikastetxei.	Se han realizado las orientaciones Valoración de los equipos directivos.
Euskal hezkuntza-sistemaren hainbat alderdiri (zerbitzuak, ebaluazioa, lan-orientazioa, etab.) buruzko informazio-gidak sortzea hainbat hizkuntzatan.	Gida instituzionalak egin eta hedatu dira kolektibo handiak ordezkatzeko dituzten hizkuntzetan.
Protokoloak eta jarraibideak sortzea ikasle etorkinen familiekin lan egiteko jarduerak arrakastatsuak ezagutarazteko.	Praktika onak bildu eta hedatzea.
GEekin batera jarduerak sustatzea familiei prestakuntza ematearen arloan.	Prestakuntza-jardueren zerrenda. Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten pertsonen balorazioa.

2. helburua

Araudia, programak eta ekintza-jarduerak eguneratu eta moldatzea, ikasle guztiak modu inklusiboan eskolatu ahal izateko irizpideei men eginez.

2.1 xedea. Euskal hezkuntza-sistemara ohiko matrikulazio-epeetatik kanpo iristen diren ikasleak eskolatzeko irizpideak berrikusi, bateratu eta argitzea.

ekintzak:	adierazleak:
Eskolaratze-batzordeen funtzionamendua aztertu eta baloratu.	Azterketaren agiria existitzen da.
Matrikulazio-jarraibideak gaurkotzea eta doitzea epez kanpo iristen diren ikasleentzat.	Eskolatzeko argibideak gaurkotzea.
Ikasle etorkinen eskolatzeko proposamenen ibilbideen jarraipena egitea, eta edozein motatako bazterkeria-arrazoiengatik sortzen diren ikastetxe-aldaketetan esku hartzea.	Protokolo bat egitea. Esku hartzeko irizpideak.
Ratioa %10 hazteko helburua bete dadila bermatzea funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztietan.	Ratioa handitzea proposatu den kasuen azterketa eta jarduteko proposamenak eskolatzeko batzordeei helaraztea.

2.2. xedea. Ebaluazio-prozesua berrikustea ikasle guztien hezkuntza-beharrizanetara doitzeko.

ekintzak:	adierazleak:
Ebaluazio- eta kalifikazio-proposamen berezi bat egitea ikasle ebaluazio-prozesu orokorrean, ikasle etorkinen egoera berezi eta iragankorrari erantzuteko.	Proposamena egitea.
Ikasle etorkinen hasierako ebaluazioa egiteko jarraibideak egitea, ikasle bakoitzaren Lan Planerako oinarri gisa balioko dutenak.	Argibideak egin eta hedatzea. Irakasle ebaluazioa.

2.3. xedea. Ekimen bateratuetan parte hartzea Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza eta sail batzuekin, ikasle etorkinen inklusioa sustatzera bideratutako proiektuetan.

ekintzak:	adierazleak:
Berrikuntza Zuzendaritzaren eta Etengabeko Ikaskuntza Zuzendaritzaren arteko lan-talde bat sortzea, HLPPko eta HHEko ikastetxeetan dagoen biztanleria immigrantearen diagnosi bat egin eta esku hartzeko proposamen bat egiteko.	Ekipoa sortzea. Proposamena egitea.
Lankidetzaren sendotzea Immigrazio Zuzendaritzaren ekimenetan.	Lankidetzaren plana.
Ikasle etorkinen egoerari buruzko txosten bat egitea, beren emaitzei eta integrazio-prozesuari buruzkoa, ikastetxeetan bildutako datuetan oinarrituta.	Txostena egitea. Hobetzeko proposamenak.
Hezkuntza eta Unibertsitateko sailburuordetzen arteko batzorde misto bat sortzea, irakasle-eskoleko eta pedagogia-fakultateetako hezkuntza-planetan kultura-arteko ikuspegia txertatzeko, baita bigarren hezkuntzako irakasleentzako masterrean ere.	Batzordearen sorrera. Lan egiteko plana proposatzea.

2.4. xedea. Erakunde eta elkarteekin koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea kulturarteko ikuspegia sustatzeko.

ekintzak:	adierazleak:
Irabazi-asmorik gabeko elkarteekin batera lan egitea familien hizkuntzak eta kulturak gordetzera bideratutako jarduerak sustatzeko.	Jarduerak hedatu eta berorien jarraipena egitea. Erakunde horiekin lankidetzan egiten diren jardueren kopurua.
Koordinazio-bideak ezartzea administrazioko beste eragile batzuekin (tokiko erakundeak eta foru-aldundiak, besteak beste) eta gizarte-taldeekin, kulturarteko ikuspegia bultzatu eta, horrela, hezkuntza-eskaintzak hobetzeko.	Baterako jardueren kopurua. Toki mailan lankidetzan jarduteko protokoloa.
Argitalpenaren sektorean kulturartekotasunaren kontzeptua sustatzea eta testuliburuek kontzeptu hori jaso dezaten begiratzea.	Curriculum-materialetan dagoen kulturen arteko ikuspegiaren egoerari buruzko txostena.

3. helburua

Baliabide berezien eraginkortasuna eta koordinazioa bultzatzea, aniztasun handiko egoeretan lan egiteko erronkaren aurrean ikastetxeen planteamenduak hobetzeko.

3.1. xedea. Hizkuntza indartzeko zein kulturarteko proiektuak dinamizatzeko irakasleen lana eraginkorra den aztertzea.

ekintzak:	adierazleak:
Ikerketa egitea hizkuntza indartzeko irakasleen eta kulturarteko proiektuaren irakasle dinamizatzaileen esku-hartzeek duten eraginari buruz.	Ikerketa egitea. Hobetzeko proposamenak.
Ikastetxeetan hizkuntza indartzeko eta kulturarteko proiektuak dinamizatzeko irakasleak jartzeko deialdiak berrikustea.	Urteroko deialdiak hobetzeko proposamenak.

3.2. xedea. Esku-hartze orokorreko proiektuak abian hartzea halakoak behar dituzten eta bazterkeria-arriskuko inguruetan dauden eskoletan, hezkuntza-errendimendua zein bizikidetzatza hobetze aldera.



ekintzak:	adierazleak:
Ikastetxeen lagin bat selekzionatzea eta izaera globaleko esku-hartze bat pilotatzea.	Pilotu-esperientziak egitea. Txostena, ondorioekin. Ikastetxearen proiektu globaletan inplikaturako irakasle-taldeak sartu edota egonkortu ahal izateko neurriak.
Proiektu orokorreari buruzko aholkularitza eta jarraipena bermatzea Ikuskaritza eta Berritzeguneekin lankidetzan.	Aurrera eramandako proiektuaren ondorioak ateratzea eta, azterketatik abiatuz, jarduteko proposamenak.

3.3. xedea. Prestakuntza-eragile ezberdinek sarean lan egin dezaten bultzatzea.

ekintzak:	adierazleak:
Berritzegune Nagusitik sare-lana sustatzea kulturarteko ikuspegiarekin lotutako jardueretan diharduten tokiko Berritzeguneetako aholkularien artean.	Aholkularien arteko koordinatu eta aplikatzeko plana. Aholkularien balorazioa.
Webgune bat diseinatu eta kudeatzea hizkuntza indartzeko irakasleen artean ikasmaterialak trukatzeko eta kulturarteko proiektuen irakasle dinamizatzaileen artean esperientziak ezagutarazteko.	Webgune sortzea. Inplikaturako irakasleen balorazioa.

5. Jarraipena eta ebaluazioa

Proposamen hauen garapenak organismo eta eragile desberdinen inplikazioa eskatzen du (Hezkuntza Sailburuordetza, Berritzapen Zuzendaritza, Ikuskaritza, ISEI-IVEI, berritzeguneak...) eta organismo eta eragile horiek beren gain hartu beharko dute jarraipena egitearen ardura. Jarraipen hori 91. atalean, 2011-2012ko eskola inklusibo baten eremuan aniztasunari arreta emateko plan estrategikoa agiriaren planaren ebaluazioa, agertzen den moduan antolatuko da. Plan horretan jasota agertzen denez, jarraipen-batzorde desberdinak daude, batzorde horiek ebaluatu nahi diren helburuen arabera prestakuntza jasoko dute, garapenean inplikaturako gizarte-sektoreen proposamenak jasoko dituzte eta, urtero, txosten bat egingo dute, programaren garapenaren balorazioarekin eta Batzorde Teknikoari zuzendutako hobekuntza-proposamenekin.



Kronograma

2012-13			2013-14			2014-15		
---------	--	--	---------	--	--	---------	--	--

1. HELBURUA	1. hiru	2. hiru	3. hiru	1. hiru	2. hiru	3. hiru	1. hiru	2. hiru	3. hiru
-------------	---------	---------	---------	---------	---------	---------	---------	---------	---------

Kulturarteko ikuspegia sendotzea ikastetxeetan, ikuspegi horrekin bat datozen antolamendu-ekimen berritzaileen bidez, eta irakasleak prestatu eta aholkatzeko prozesuen bidez.

1.1. xedea. Ikastetxeen barruan proiektu orokorrak bultzatzea, kulturarteko ikuspegia duen esku-hartzea eragiteko.

Ikastetxeko prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuetan Kulturarteko ikuspegia garatzen duten jarduerak txertatzea.									
Ikastetxea auzoan integratzera bideratutako ekintzak (ikastetxeko liburutegia irekitzea edota beste eragile batzuekin batera jarduerak antolatzea, hala nola, gazte-elkarteekin, aisialdi-taldeekin, eta auzo- edo etorkin-elkarteekin) barne hartzen dituzten ikastetxe-proiektuak sustatzea.									
Hartu-emanak ezartzea kulturarteko ikuspegia duten ikastetxeen artean.									

1.2. xedea. Kulturarteko ikuspegia txertatzea ikastetxeko erakunde-agiritan (ikastetxearen hezkuntza- eta curriculum-proiektuak, urteko plana, etab.).

Ikastetxeko erakunde-agiriak berrikustea, kulturarteko ikuspegia aintzat hartuta.									
Hobekuntza-planak ikasle etorkinen ezaugarriak eta premiak kontuan hartuz egitea.									
Ikastetxeko Bizikidetzeta Plana sustatzea; plan horrek arreta berezia jarriko du arrazakeriaren aurkako hezkuntzan; gainera, eskolaren egitura zein antolamenduari, etikari eta balioei lotutako hainbat jarduera barne hartuko ditu.									
Ikastetxeko harrera-planak orokortzea, horiek ikasturtearen hasierako jarraibideetan sartu eta agiri hori ikastetxeko urteko planean txertatuz.									
Jarduteko protokolo bat ezartzea, ikasle etorkinak etapa eta ikastetxe desberdinen artean errazago mugitzeko.									
Banakako esku-hartzerako planak eguneratzea, eskola inklusiboaren ikuspuntutik, ikasle etorkinekin lan egiteko orduan tresna erabilgarriak izan daitezen.									

2. HELBURUA	2012-13			2013-14			2014-15		
	1. hiru	2. hiru	3. hiru	1. hiru	2. hiru	3. hiru	1. hiru	2. hiru	3. hiru

Araudia, programak eta ekintza-jarduerak eguneratu eta moldatzea, ikasle guztiak modu inklusiboan eskolatu ahal izateko irizpideei men eginez.

2.1. xedea. Euskal hezkuntza-sistemara ohiko matrikulazio-epeetatik kanpo iristen diren ikasleak eskolatzeko irizpideak berrikusi, bateratu eta argitzea.

Eskolaratze-batzordeen funtzionamendua aztertu eta baloratu.										
Matrikulazio-jarraibideak gaurkotzea eta doitzea epez kanpo iristen diren ikasleentzat.										
Ikasle etorkinen eskolatzeko proposamenen ibilbideen jarraipena egitea, eta edozein motatako bazterkeria-arrazoiengatik sortzen diren ikastetxe-aldaketetan esku hartzea.										
Ratioa %10 hazteko helburua bete dadila bermatzea funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztietan.										

2.2. xedea. Ebaluazio-prozesua berrikustea ikasle guztien hezkuntza-beharrizanetara doitzeko

Ebaluazio- eta kalifikazio-proposamen berezi bat egitea ikasleen ebaluazio-prozesu orokorrean, ikasle etorkinen egoera berezi eta iragankorrari erantzuteko.										
Ikasle etorkinen hasierako ebaluazioa egiteko jarraibideak egitea, ikasle bakoitzaren Lan Planerako oinarri gisa balioko dutenak.										

3. HELBURUA	2012-13			2013-14			2014-15		
	1. hiru	2. hiru	3. hiru	1. hiru	2. hiru	3. hiru	1. hiru	2. hiru	3. hiru

Baliabide berezien eraginkortasuna eta koordinazioa bultzatzea, aniztasun handiko egoeretan lan egiteko erronkaren aurrean ikastetxeen planteamenduak hobetzeko.

3.1. xedea. Hizkuntza indartzeko zein kulturarteko proiektuak dinamizatzeko irakasleen lana eraginkorra den aztertzea interculturales.

Ikerketa egitea hizkuntza indartzeko irakasleen eta kulturarteko proiektuaren irakasle dinamizatzaileen esku-hartzeek duten eraginari buruz									
Ikastetxeetan hizkuntza indartzeko eta kulturarteko proiektuak dinamizatzeko irakasleak jartzeko deialdiak berrikustea									

3.2. xedea. Esku-hartze orokorreko proiektuak abian hartzea halakoak behar dituzten eta bazterkeria-arriskuko inguruetan dauden eskoletan, hezkuntza-errendimendua zein bizikidetzatza hobetze aldera.

Ikastetxeen lagin bat selekzionatzea eta esku-hartze global bat pilotatzea.									
Proiektu orokorrei buruzko aholkularitza eta jarraipena bermatzea Ikuskaritza eta Berritzeguneekin lankidetzan									

3.3. xedea. Prestakuntza-eragile ezberdinek sarean lan egin dezaten bultzatzea

Berritzegune Nagusitik sare-lana sustatzea kulturarteko ikuspegiarekin lotutako jardueretan diharduten tokiko Berritzeguneetako aholkularien artean									
Webgune bat diseinatu eta kudeatzea hizkuntza indartzeko irakasleen artean ikasmaterialak trukatzeko eta kulturarteko proiektuen irakasle dinamizatzaileen artean esperientziak ezagutarazteko									

